

**2022ko UZTAILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **7 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2022ko uztailaren 28an, arratsaldeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udaltzarako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak Miren Letamendia Belloso and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Iker Basurko De Miguel jn.
Irene Urbietta Alberdi and.
Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ainara Landa Argote and.
Begoña Olaizola Elordi and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Eider Illarramendi Azkue and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn.
Oihane Delgado Pita and.

Ez da etorri Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.

Idazkaria Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Kontu-hartzailea Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERREDA

1.- 2022ko EKAINAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2022ko ekainaren 24tik uztailaren 21era.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2022ko ekainaren 24tik uztailaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2022ko ekainaren 27tik uztailaren 18ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekainaren 27tik uztailaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2022ko 2. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=4>

Udalbatzak jakin berri du 2022ko bigarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2022ko 2. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=5>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2021eko bigarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- KREDITU-KONPROMISOA ONARTZEA 2023. EKITALDIRAKO: NAFARROA KALEKO BERRURBANIZAZIOA.

Espedientea: 2022D2010002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=6>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Ikusita kontu-hartzaileak egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

ERABAKI DU

Konpromiso-kreditua onartzea:

KONTUSAILA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK		GUZTIRA
		2023	2024	
5 0401.601.02.151.00	NAFARROA KALEKO BERRURBANIZAZIOA	583.970,48		583.970,48
	GUZTIRA	583.970,48		583.970,48

Ondorioz, konpromiso-kredituen eranskina ondorengoa da:

KONPROMISO-KREDITUEN ERANSKINA

(21/2003 Foru Arauaren 6.1.e art.)

KONTUSAILA	AZALPENA	KOPURUAK ETA EKITALDIAK		GUZTIRA
		2023	2024	
5 0201.622.00.920.00	SANTA KLARA KOMENTUA	1.282.355,75	1.282.355,75	2.564.711,50
5 0401.600.02.153.20	ASFALTATZE LANAK	400.000,00		400.000,00

5 0401.601.02.151.00	NAFARROA KALEKO BERRURBANIZAZIOA	733.970,48		733.970,48
5 0401.601.04.153.30	HAUR PARKEAK	323.500,00		323.500,00
5 0401.622.02.150 00	ASTIKO KANTINA	100.000,00		100.000,00
5 0401.629.01.150.00	KOMUN AUTOGARBITZAILEAK	240.000,00		240.000,00
5 1101.645.01.133.00	HEGOALDE:APARKALEKUAK	215.000,00		215.000,00
5 1101.712.01.151.10	ETS: TREN-GELTOKIA ETA AZPIKO PASABIDEA	1.304.025,00	1.304.025,00	2.608.050,00
GUZTIRA		4.598.851,23	2.586.380,75	7.185.231,98

7.- TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO - UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA- AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA.

Espedientea: 2022A9890001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=7>

Zarauzko Udalak NBek promulgatutako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak modu aktiboan betetzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, bere udal politika eta kudeaketa egokitzearen eta eraldatzearen bitartez.

Konpromiso hau gauzatzeko modua da tokiko gobernantza-eredu integral eta adimendun bat ezartzea, jasangarritasun globalaren aldeko hobekuntza etengabeko prozesu gradual baten bitartez, Tokiko 2030 Agendara iristeko xedez.

Eta ahalegin horretan, Udalak azpimarratzen ditu Udalsarea 2030en partaide izatearen onurak, horren helburua tokiko ekintza jasangarria sustatzea baita, Tokiko 2030 Agendaren esparruan, prozesu horiek teknikoki sostengatzeaz batera.

Horiek horrela, Zarauzko Udaleko Udaltzarrak, aho batez,

ERABARAKI DU

Atxikitzea "TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO -UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA- AKORDIOARI", hortik eratoritzen diren konpromisoak bereganatuz.

Horretarako, pertsona hauek izendatzen ditu:

Maila politikoan Arduraduna: Xabier Txurruka Fernandez, Zarauzko Alkatea

Ordezkoa: Iker Basurko De Miguel, Proiektu Estrategikoak, Berrikuntza eta Zarautz 2030 Zinegotzia

Maila teknikoan: Nerea Ollokiegi Bengoetxea, Agenda 2030 arduradun teknikoa.

8.- ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Espedientea: 2013I1200002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=8>

2013ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA kontratatzeke administrazio-klausula zehatzen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea eta kontratua prozedura ireki bidez adjudikatzeke deialdia egitea erabaki zuen Udalbatzarrak.

Bestalde, 2013ko ekainaren 19an egindako osoko bilkuran, Udalak UTE ZARAUZKO HIRIBUSA (TRANSPORTES PESA SA/TOLOSALDEA BUS SL) enpresari adjudikatu zion kontratu hori.

Kontratua gauzatzeko beharrezkoa zen dokumentazioa aurkezteke emandako epean TRANSPORTES PESA SA eta TOLOSALDEA BUS SL sozietateek ZARAUZKO HIRIBUSA SL eratu zuten (2013ko uztailaren 11n). Kontratua 2013ko uztailaren 23an sinatu zuten, eta zerbitzua 2013ko abuztuaren 1ean jarri zen martxan.

2017ko maiatzaren 25ean eta 2018ko abenduaren 3an egindako osoko bilkuretan, prezioa eguneratzea eta kontratua aldatzea erabaki zuen Udalbatzarrak.

2019ko abenduaren 26an egindako Udalbatzarrean ere kontratua eguneratzea eta aldatzea erabaki zen, helburu bikoitzarekin: batetik, 4, 5 eta 6 ekitaldietako likidazioak egitea; eta, bestetik, Vista Alegre auzoko joan-etorriko bidaien doakotasuna jasotzea (Aldapetako lanen ondorioz sortutako irisgarritasun arazoak zirela-eta).

2020ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak bi erabaki hauek hartu zituen: lehena, ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO KONTRATUA urtebetez luzatzea, hain zuzen ere, 2020ko uztailaren 24tik 2021eko uztailaren 23 arte; eta, bigarrena, kontratua aldatzea, honako baldintza honetan: luzapenak irauten duen bitartean eta beti ere erreferentziazko diru-sarrerak ohiko egoera batean aurreikusten direla ulertuta, zerbitzuari 145.000 euroko erreferentziazko diru-sarrerak jartzea 2020ko ekainaren 4tik luzapena amaitu arte (agirietan jasotakoaren arabera urtero berraztertu ahal izango dena).

2021eko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak erabaki zuen Orain, kontratua urtebete luzatzea 2021eko abuztuaren 1etik 2022ko uztailaren 31 arte, zerbitzuari 145.000 euroko erreferentziazko diru-sarrerak jarrita.

Orain, kontratua urtebete luzatzea proposatu du Udaltzaingoak (Mugikortasuna), hain zuzen ere, 2022ko abuztuaren 1etik 2023ko uztailaren 31 arte. Luzapen hau azkena izango da, eta luzapenak irauten duen bitartean eta beti ere

erreferentziazko diru-sarrerak ohiko egoera batean aurreikusten direla ulertuta, zerbitzuari 145.000 euroko erreferentziazko diru-sarrerak jartzea proposatu du.

Herritarren arloko informazio-batzordeak proposamena onartzearen aldeko irizpena eman zuen, 2022ko ekainaren 16ean egindako bileran.

Aurreko hori guztia kontuan hartuta, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

ZARAUZKO UDALERRIAN BIDAIARIEN HERRI-GARRAIOKO ZERBITZU PUBLIKOA KUDEATZEKO KONTRATUA urtebete luzatzea, hain zuzen ere, 2022eko abuztuaren 1etik 2023ko uztailaren 31 arte.

Luzapenak irauten duen bitartean eta beti ere erreferentziazko diru-sarrerak ohiko egoera batean aurreikusten direla ulertuta, zerbitzuari 145.000 euroko erreferentziazko diru-sarrerak jarri zaizkio.

Hau azkenengo luzapena izango da eta baldin emakidaren epea bukatzen denean amaitu gabe baldin badago zerbitzuaren hurrengo emakidakuna zein izango den zehazteko prozedura, ZARAUZKO HIRUBUSA SL. enpresak, Administrazioak hala eskatuta, zerbitzua ematen jarraituko du prozedura hura bukatzen den arte, gehienez ere hamabi hilabeteko epean.

9.- VISTA ALEGRE AUZOKO ERAIKINEN ETA INGURATZEN DITUZTEN LURZORUEN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA

Espedientea: 2020H7000007

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=9>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	19	9 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Ondorioz, Udalbatzarrak adierazitako gehiengoarekin, honakoa erabaki du:

Udalak azterlan bat enkargatu zion ARI arquitectura enpresari, Vista Alegre auzoko eraikinetako portxeen, terrazen eta beste elementu batzuen eta horiek inguratzen dituzten lurren kalifikazioari buruz (publikoa edo pribatua).

2021eko uztailean, azterlanaren berri eman zitzaizkien auzoko etxebizitza-eraikinetako elkarteei, audientzia izapidean (2021eko ekaineko dokumentua).

Aurkeztutako alegazioei buruzko txostenak egin ondoren, idazketa-taldeak aldatu egin zuen dokumentua. Udalak hasierako onespena eman zion 2022ko otsaileko dokumentu berriari (Alkatetzaren 0347 dekretua, 2022ko martxoaren 1ekoa).

Espedientearen jendaurreko erakustaldian, guztira 2 alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak horiei buruzko txostena egin zuen.

Lurraldeko informazio-batzordeak espedientearen gaineko irizpena eman zuen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak,gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehena.- Aurkeztutako alegazioei erantzutea, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak egindako txostenaren arabera (maiatzaren 25eko 313/2022 txostena). Horren ondorioz:

1.- Orkolaga 4ko jabeen elkartea. Alegazioa onartu egin da.

Eraikinaren hegoaldean dauden terrazei eta eskailerei eta mendebaldean dagoen portxeari erabilera publikoko zortasuna duen jabetza pribatuko kalifikazioa emango zaie.

Ondorioztatu da espazio horiek ez dutela izaera pribatibo hutsa, baizik eta oinezko ibilbide-zerbitzua ematen diotela auzoari, batez ere eraikinaren ekialdean igogailu publikoa eraiki zenetik.

2.- Allemendi 2ko jabeen elkartea. Alegazioa partez onartu egin da.

Kasu honetan, irizpide orokorrak aplikatu dira. Ondorioztatu da mendebaldeko portxea ez dela beharrezkoa auzoko mugikortasuna bermatzeko. Portxe horren izaera hobeto egokitzen zaio Allemendi 2ko bizilagunen zerbitzurako erabilera pribatiboari.

Hala ere, eraikinaren hegoaldean dagoen espazioaren kasuan, ondorioztatu da berez ez dela portxe bat, baizik eta, batez ere, oinezkoentzako espazio publiko bat, eraikinaren hegalen azpian dagoena. Beraz, horrela jasoko da azterlanean.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea Zarauzko Vista Alegre auzoko eraikinaren eta horiek inguratzen dituzten lurzoruen azterlanari.

Onartu den agiriak 2022ko uztailleko data dauka.

Hirugarrena.- Zehaztapen hauek egiten dira:

a.- Azterlana ez da hartuko planeamenduaren aldaketa gisa, baizik eta Udalak plan orokorra argitzeko emandako jarraibide edo zirkular gisa.

b.- Dokumentuak lurzoruen kalifikazio desberdinak zehaztu ditu. Kalifikazio horren arabera izango da bai lurzoru bakoitzaren erabilera bai horiek kontserbatzeko eta birgaitzeko ardura.

c.- Nolanahi ere, desadostasunik egonez gero, errealitate juridikoa nagusituko da, planoetan irudikatutakoaren gainetik.

Laugarrena.- Akordio hau jakinarazi egingo da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita. Azterlana oso-osorik jasoko da Udalaren web-orrian.

10.- ESKARI-GALDERAK

Bertaratutako inork ez du hitzik hartu.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220728&punto=10>

Gai-zerrendako aurreko puntua amaituta, eta bilkura bukatu aurretik, alkate jaunak eta udaleko talde politiko guztietako bozeramaileek agur-hitz hunkigarriak eskaini dizkiote Ines Diaz de Villafranca Arzamendi Udaleko idazkariari. Izan ere, Zarauzko Udalean ia 41 urtez lan egin ondoren, laster erretiroa hartuko du, eta denek eskerrak eman dizkiote egindako lanagatik.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta berrogehian; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.